

Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak ireki du Ikaskide Taldearen 5. jardunaldia Eskoriatzako campusean

2015/05/15

Cristina Uriarte Hezkuntza, Hizkuntza politika eta Kultura saileko sailbururen hitzaldiarekin hasi da, gaur, goizeko, 09:00etan, Ikaskide Taldearen jardunaldia Eskoriatzako campusean. Sailburuarekin batera, hasiera ekitaldian parte hartu dute Patxi Olabarria Erkide irakaskuntza kooperatibako idazkariak eta Begoña Pedrosa Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanook.

Jardunaldiaren 5. edizio honek "Hezkuntza kalitatea hobetzen: gakoak eta esperientziak" du lema, eta 80 ordezkariak gora bildu ditu ikastetxeetan izandako esperientzia berritzaileak partekatzeko, betiere, kalitatean aurrerapausuak emateko helbururarekin.

- Jardunaldian egindako argazki sorta.
- Jardunaldiaren gaineko informazio.



Patxi Olabarria (Erkide. Irakaskuntza), Cristina Uriarte (Eusko Jaurjaritza) eta Begoña Pedrosa (Mondragon Unibertsitatea).